Euskalkiak estandarraren uholdepean (Arratiako kasua)

Gotzon Aurrekoetxea

Osasuntsu ote daude gure herrietako hizkerak edo osasuntsu ote dago gure euskalkia? Itaun hau egiteko plaza aproposa dela deritzot. Gauza bera edo antzekoa esan nuen plaza honetan berean duela 3 urte eta gaineratzen nuen euskalkien eta herrietako hizkeren osasuna denon arazoa dela.

Baina zer da hizkeren osasuna? Esan daiteke hizkera bakoitzak bere ohiko ezaugarriak gordetzen dituenean "kanpoko" ezaugarri batzuk bereganatzen dituenean baino osasuntsuago dagoela? Demagun horrela ulertzen dugula. Hori da behintzat gure inguruan hizkerak aztertzen ditugunean gure aurreiritzietan eta gure subkonszientean dagoena. Horregatik ohikoa bihurtu da ikerketa dialektalak egitean jende adindua baino ez hartzea kontuan.

Hizkeren osasuna zer den zehazten ez dugu jardungo hemen. Minutu batzuetan esatekoa baino konplexuagoa dela deritzot eta. Gehiago interesatzen zait, eta edonorentzat ere interesgarriagoa dela uste dut, hizkuntza estandarra eta hizkeren edo gura bada euskalkien artean hizkuntza guztietan izaten diren berdintze edo nibelazio joe-

rak. Hau da, gure herrietan egiten den euskara mota zelakoa den. Batua edo estandarraren ezaugarriak hasi diren sartzen ala gure gurasoen berbakera bera ote den erabiltzen. Zelan egiten den gaur egun zahar, heldu eta gazteen artean. Zein erabiltzen dugun *ustrukua* ala *ortzadarra,* edo *baten bat, nonor* ala *norbait; bagila* ala *ekaina...*

Aspaldi honetan nire ikerketa lerro batean hizkuntza batean estandarra eta dialektoen arteko harremanak sakontzeari ekin diot. Gaur ekarpen berri bat dakarkizuet: Arratian gazte eta helduen hizkeraren lagin batzuk ikuspuntu honetatik aztertuz. Arratiako 5 herri aukeratu dira: Zeanuri, Areatza, Artea, Igorre eta Lemoa[1]; Dimako datuak beste ikerketa batean argitaratu nituen eta ez ditut hemen azalduko.

Noraino da batuaren eragina eguneroko bizitzan Arratian gaur egun? Itaunari erantzuna ematen ahaleginduko naiz ondoko lerrootan. Horretarako bi adin edo belaunaldi aukeratu ditut: gazteak (18-22 urte) eta helduak (40-50 urte bitartekoak)[2].

Erabili den galdesortak hizkuntzaren alde desberdinak biltzen ditu: fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa biltzen duena. Guztira 100 bat itaun egin dira informazio emaile bakoitzarekin.

DATUAK ADINKA: HELDUAK

Inkestetan jasotako datuen arabera helduek ondo eusten diote euren hizkerari (ikus 1. irudia). Jasotako erantzunetatik %85ean eusten diete ohiko formei. Nahiz garbi azaltzen den batuaren eragina

[1] Eskerrak emon gura dizkiet Joseba Larrakoetxea, Jose Luis Madariaga, Begoña Amundarain, Rakel Iruarrizaga eta Miren Madariagari datuak jasotzeko emon didaten laguntzagatik.

[2] Adin bakoitzean 6 pertsona izan dira itaunduak: 3 gizonezko eta beste hainbat andrazko. Erabili den galdesorta berezia, horretarako sortua izan da. Jada 2001.

eguneroko bizitzan (erantzunen %11). Aipatu behar da pertsona hauek eskola gaztelaniaz jaso dutela eta gehienak euskaraz alfabetatu bakoak direla. Euskara estandarrarekin dituzten harremanak edo seme-alaben bidez edo telebistaren bidez direla, nagusiki.

1. irud.: helduak



Ikuspuntu itxi batetik begiratuz euskara nahastua dute: bertako berben ondoan kanpoko hitzak ere bere lekua egin dute. Horrela herri bereko biztanleen artean entzun daitezke *ustrukúe, arkoírisa* eta *ortzadarra,* adibidez; edo *txilipotadea, mariposa* eta *tximeleta.* Aldi berean, pertsona berarengan entzun daitezke, *izotza, tximista* eta *odaie;* edo *txorimaloa* eta *míxerra.*

Ohargarria da, beste adibide bat aipatzearren, hilabeteen izenekin dagoen nahastea ikaragarria: herri berean aho desberdinetan baina batera erabiltzen dira *júnio, ekaine* eta *bagíle;* edo *nobienbre, asároa* eta *zemendie…*

Hori da Arratiako jende helduen artean entzuten den berbakera. Nabarra, euren asaben hizkera darabilte, baina euskara estandarraren zipriztin batzuekin.

Herriz herri aztertzen badira datuak herri batetik bestera ez dago-ela alde handiegirik ikus daiteke.

2. irud.: helduak herrika



2. irudian ikus daitekeenez herri batetik besterako aldera ez da handiegia. Handienaren eta txikienaren artean %5era ere ez da heltzen.

Aipagarria da hiri eta industrializazioaren eragina nabaritzen dela datuotan: Zeanuri, industria guneetatik urrunen den herria, da hizkeraren ezaugarriak ondoen gordetzen dituena eta kopuru handienak eskaintzen dituena. Beste muturrean dago Igorre (Lemoan ez da helduen daturik bildu) kopuru txikienak bilduz.

Estandarraren sarrera indizeak jada nahiko handiak dira belaunaldi honetan, kontuan hartzen bada aldaera horrekin ez eskolan ezta gainerako harreman puntuetan ez duelako harreman esturik izan. Indize hauek %14tik %8ra bitartekoak dira.

DATUAK ADINKA: GAZTEAK

Jende gaztea, batuaren hezurdura finkatutako sasoian euskaraz eskolatua izan dena, aukeratu da ikerketarako.

3. irud.: gazteak



Datuetan ikus daitekeenez estandarraren indizeak bikoiztu egin dira helduen irudiarekin alderatuz (%11 -tik 22era pasatu da).

Adin honetan elkarren artean bizi dira *mixerra* eta *urtxintxa,* edo *txorimaloa* gailendu zaio *txuxoari*, berdin *trumoia odaieri* edo *tximele - ta mariposeari (txilipotadea* desagertu da). Adin honetan desagertu dira besteak beste *zemendia, bagilla...*

Herrika sailkatuta agertzen zaizkigu herrien arteko desberdintasunak: aurreikusten den legez Zeanuriko gazteak dira ondoen lotzen direnak tradizioari eta asaben berbetari; % 15an erabiltzen dituzte estandarreko herriz kanpoko berbak; eta Igorre salbu, hiririantz jaitsi ahala estandarraren agerrera nabariagoa da: Areatza %22, Artea 25 eta Lemoa %27.

Norabidea zein den ere erraz atzeman daitekeela uste dugu Lemoako informazio emaile baten kasua aipatzen bada: inkestatuetako gazteenaren (16 urte) ahotan ia %53era heldu da herriz kanpoko formen agerrera.

4. irud.: gazteak herrika



Sarbide erraza dauka estandarrak datu hauek erakusten dutenez Arratialdean, gainerako herrialdeetan legetxe: Areatzan 12 puntu igo da helduekin erkatuz eta Artean 18 puntu, adibidez.

DATUAK: HELDU ETA GAZTEAK BATEAN

Datuekin amaitzeko Arratiako herri guztietako datuak bildu eta elkarren artean batetik eta denak diagrama batean osorik ikusiz



Arratiako herrietan gai honetan gertatzen diharduena ikusteko modu erraz bat lortuko dugu; ikuspen orokorra izango dugu modu honetan.

Gorago ere esan denez Igorreko datuak albo batera utziz, Zeanurik Lemoara gutxika-gutxika bertako ezaugarrien kopurua gutxituz doakigu: Zeanuriko %85etik Lemoako %71raino (kontuan izan Lemoan gazteak baino ez direla inkestatu). Aldi berean Arratiaz kanpoko forma estandarrak ugarituz datozkigu norabide berean.

Datu hauek aldaera estandarrak hedatzeko erabiltzen dituen baliabide eta bitartekoen inguruan pentsatzera eraman behar gaituzte. Besteak beste ondoko itaunok egin behar direla uste dut: aldaera estandarrak hedatzeko gune egokiagoa ote du bizitza hiritarra, baserriarekin lotu handiagoa duten giroa baino? Garbi dago aldaera jaso eta idatziaren gune emankorrena hiria dela, hiri kulturaren bitartekoak erabiltzen dituela bere hedapenean.

Datuok diagrama batean ikusiz esan daiteke 2003an Arratiako komunitatean aldaera estandarraren indarra % 17ra heldu dela. Hala ere oraindik bere ezaugarri propioen %80an gordetzen ditu.

Heldu eta gazteak



Atxikimendu handitzat hartu behar ote da datu hau? Batetik esan daiteke baietz. Euskara estandarrak izan duen babesa eta bitartekoak kontuan izanda ehuneko hain altuan bere ezaugarriak gordetzea bere asabaren berbetearekin lotua hestua erakusten duela. Baina bestalde, aldaera estandarraren sarreraren erritmoa ez da aritmetikoa, geometrikoa baino. Horrek pizten du kezka. Ondoko urteak berebiziko garrantzia izango dute, zalantza barik[3].

ONDORIOAK

Euskaltzaindiaren 15. biltzarrean aurkeztu nituen datuak hauekin alderatuz gero bada aldea! Haiek hauek baino askoz kezkagarriagoak ziren, berdintze maila askoz ere handiagoa zen. Hauek ostera ez dira horren larriak. Baina hain larriak izan ez arren, arduratzeko modukoak badirela esan daiteke.

Datu hauek ikusita bizkaiera edo Bizkaiko hizkerak batuak jota ete daude? Arazoa honek ere ikuspuntu bat baino gehiago ditu. Bada, halakoetan ikuspuntu ezkorra duen jendea: aldaera estandar indartsuak gainerako alboko aldaerak suntsitzera bideratzen ditu, ahal bezain laster.

Honen aurkako ikusmoldearen arabera dialektoen estrategiaren barruan kokatzen da eta eusten zail diren ezaugarriak galduz babesten du bere burua. Hizkerak edo euskalkiak bizirik jarraitzeko mekanis-

[3] Hemen Arratiako datuak baino eskaini ez diren arren, jada hasiak dira beste herri batzuetan ere antzeko lanak egiten. Horietakoak dira Naroa Ogandok Lekeition egindakoa, edo Iñaki Gurrutxagak Orioko euskarari buruzkoa edo Ahinitz Gerrikagoitiaren Donostialdeko hizkeraren alde konkretuak lantzen dituen ikerlana, oraindik argitaratu gabe badaude ere.

moak direla esango nuke: aldaera nagusiari, batuari, ordaindu behar zaion zelan edo halako kontribuzio edo zerga.

Egia esan, Europan ikertu diren fenomeno hauetan ikusmolde biak izan dira landuak eta bietarik ematen dela dirudi.

Kontua da, ea gauzak bere horretan utzi behar diren ala neurriren bat hartu behar den. Edo bestela esanda: ea hizkuntza planifikatu behar den ala ez.

Euskara bizi den artean euskalkiak ere biziko direla entzun da maiz euskaltzale eta euskalarien ahotik. Zelako euskalkiak baina? Itaun genezake hemen.

Beti izango dira hizkuntza batean aldaerak; bai diatopikoak, bai diastratikoak bai diafasikoak. Horretan ez dago zalantzarik. Hori horrela da hizkuntza guztietan.

Baina, zelako bizkaiera, demagun, ezagutuko dugu belaunaldi bi barru, adibidez, egoera honi galga ez bazaio ipintzen? Zenbat ñabardura galduko du euskarak, estandar eta hizkeren arteko berdintze fenomeno bortitz eta indartsuena ez bada galgatzen?

Ez nago euskarak gordetzen dituen aberastasunetatik bat ere galtzeko prest. Ez dut uste inork defendatu dezakeen gauza denik. Baina praktikan gauzak behar legez ez badira planifikatzen aurrez ikus daiteke zer gerta daitekeen, datu hauek gogoan baditugu. Euskalkiak babesteko plangintza aktibo bat behar beharrezkoa da.

Baina, sasoiz ote gaude jada? Fenomeno honekin oharturik badira jada urte batzuk gure inguruan behintzat, gaiari itzulia emateko ahaleginetan murgilduta dabilen talde bat baino gehiago. Horien artean aurkitzen da, Arratiako kasua aipatu dudanez, Arratia Institutuko ekimen interesgarri bat: *Gure berbategie.* Urte batzuk direla bertako irakasle batzuen ekimenez *Gure berbategie* deitu den inguruko hizke-

ra prestigiatzeko proiektua hasi zen abian. Datu ekarleak ikasleak dira eta etxeko berbekin doaz osatzen berbategia. 3.000 berba (edo esapide) baino gehiago batu dituzte jada. Aurten, gainera, proiektuak institututik eskolarako jauzia egin du eta hor dabiltza jo eta ke galbidean dauden berbak batu eta ikaskideei irakasten. Bertakoa harrotu eta liburuetakoekin parekatzen.

Horrelako talde asko eta maila askotan dabilela badakigun arren talde hauen arteko zelan edo halako koordinazio falta nabaria da. Mugimendu hau eratu egin behar da eta plangintza baten barruan sartu. Plan horretan irakasleak, idazleak, kazetariak, administrazioko langileak, ikertzaileak eta beste lanbideetako langileak ere behar dira. Mugimendu indartsua sortu beharko genuke bakoitza beretik abiatuz, euskara batua onartuz, eta batu horretan geure ezaugarriak sartuz joan daitezen.

Helburuen artean gure berbamoldeak prestigiatzea, erabiltzea, ezagutaraztea eta batuan txertaraztzea. Ez da lan erraza, ez da behar makala! Eta epe luzekoa. Baina lehentasunak markatuz eta ekintzak programatuz egingarria dela deritzot.

BIBLIOGRAFIA

AUER, P., 1998, "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 1-9.

AUER, P. / F. HINSKENS, 1996, "The Convergence and Divergence of Dialects in Europe. New and not so New Developments in an Old Area", *Sociolinguística* 10, 1-30.

AURREKOETXEA, G. (argitaratzeko), *Estandar eta dialektoen arteko bateratze joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat),* Euskaltzaindia, XV. Biltzarra, Bilbo.

BELLMANN, GÜNTER, 1998, "Between Base Dialect and Standard Language", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 23-34.

CHRISTEN, H., 1998, "Convergence and Divergence in the Swiss German Dialects", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 53-67.